

3

Jonathan Rubines

G a z t e
naturalisten
koadernoa

NATURA GURE
ETXE ONDOAN



sua
EDIZIOAK




Aurkibidea

6 SARRERA

- 9 Hirietako biodibertsitatea eta ingurumen-krisia
- 10 Hiriak, ekosistema berria
- 15 Biodibertsitatea hirietan eta landa-eremuetan. Ekipoa eta segurtasuna
- 16 Biofilia
- 18 Naturaren piramidea
- 20 Hegan eta ametsetan
- 23 Naturarekin bat egiteko ideiak
- 28 Hiriguneetan biodibertsitateari eusteko ideiak 
- 34 ★ Jarduera. Egin zure konpostagailua etxerako
- 36 ★ Jarduera. Paper birziklatua

38 GURE ARTEAN BIZI DIRA

- 41 Hirietako eta herrietako hegaztiak
- 52 ★ Jarduera. Egin hegaztiak babesteko ziluetak
- 54 ★ Jarduera. Egin habia-kutxa bat auzoko hegaztientzat
- 58 Ugaztun txikiak
- 66 Hozkailuaren atzealdea
- 70 ★ Jarduera. Intsektuak harrapatzeko xurgagailua
- 72 Bide eta zelaietako zorroak
- 82 ★ Jarduera. Tximeleten oasia
- 84 ★ Jarduera. Intsektuen hotela
- 86 Jateko moduko basoa
- 90 ★ Jarduera. Arkakarats olioak
- 92 ★ Jarduera. Masusta izozkia
- 94 Zelai usaintsuak
- 100 ★ Jarduera. Egin zure belar-gatza



- 102 Lorategi bazterrean oihana
- 108 ★ Jarduera. Hazi-bonba!
- 110 ★ Jarduera. Orkideen jarraipena
- 112 Horma bizi-biziak
- 118 ★ Jarduera. Nondik nora dabil barraskiloa?

120 ARRASTO BILA ERAIKIN ARTEAN

- 122 Norbaitek oinatza laga du
- 126 Etxeko animalien oinatzak neta arrastoak
- 127 Hirietako eta herrietako hegaztien oinatzak eta arrastoak
- 130 ★ Jarduera. Oinatz-arteak
- 132 Komunerako tenorea da
- 132 Ugaztun txikien gorozkiak
- 135 Zirina, hegaztien gorotza
- 136 Bestelako gorotzak
- 137 Janari-hondarrak nonahi
- 146 ★ Jarduera. Aztertu hontz zuriaren egagropilak
- 148 Bizileku egokia
- 158 Argi eta soinu ikuskizuna



162 AMAITU AURRETIK...

- 164 Terminoen glosario laburra
- 166 Intsektuaren atalak · Armiamaren atalak
- 167 Irakurgai aukeratuak





Nekazaritza hirian

Hiriguneak ekosistema gisa funtzionatzeko beste bide bat hiri-nekazaritza da. Baratzeko komunitarioek eta hiri-etxaldeek elikagai fresko eta osasungarriak ekoizten dituzte eta, gainera, landa-eremuetatik datozen horniduren garraioa murrizteko jarduera jasagarriak sustatzen dituzte. Horrelako proiektuek inguru-

giro heziketa eta komunitatearen barruko loturak indartzen dituzte. Horiei erantsi behar zaizkie patio berdeak, landaretza kontrolpean edukitzeko aziendak, faunari zabalik dagoen arkitektura... bide horiek guztiak hiriguneak eta herriguneak benetako ekosistema naturalak bihurtzera datoz.

Biodibertsitatea hirietan eta landa-eremuetan

Ekipoa eta segurtasuna

Guretzat hurbileko naturaren abantailarik handiena etxe ondoan daukagula da. Etxetik irtengabe ere gozatu ahal dugu, beharbada zure logelako lei-hotik bertatik. Jarrera egokia behar da, gure burua harritzeko prest izatea, inguruan daukagunetik ikasteko gogoz. Bizitza edonon dago.

Etxe ondoko bidetik baratzera joatekoak bagara, edo fruituak batzera edo hegaztiak ikustera, hondartzara, basora edo mendira joateko segurtasun neurri berdinak hartu behar ditugu. Hala ere, badago kontuan hartu behar dugun atal bat: hiriguneetako eta herriguneetako bizimoduari atxikitako arriskuena. Bai, bete-betean asmatu duzu, kontuz ibili behar gara bideko segurtasunari dagokionean, semaforoan agin-

duak betez eta errepidea zeharkatu orduko alde bietara begiratu.

Prestatu aktibitatea:

Hiri-biodibertsitatearekin lotutako aktibitateak, normalean, ezagutzen ditugun lekuetan egiten dira. Sarritan, aurretik prestatu gabe egiten dira, etorri ahala. Nahikoa da senideren bati non egongo zaren esatea eta, asmoa aldatuz gero, abisua eman. Eduki beti kontuan aurreikuspen meteorologikoak eta eraman aldean euritarako edo hotzerako arropa. Gogoratu: beti da hobe jantziak sobera eramatea.

Naturalistaren ekipoa:

Benetako naturalistak beti eramaten du motxila aldean. Beraz, ez ahaztu zurea prestatzeaz ondoko osagarri hauekin:

1. Arropa egokia. Pentsatu zein den oinetako egokia aktibitate horretarako. Lohitu edo bustiko zarelakoan bazaude, eraman ezazu aldatzeko arropa. Eta ez ahaztu eguzkiaz babesteko kapelaz edo hotzaz babesteko txanoaz.
2. Ura eta jatekoak. Etxetik hurbil egonda ere, eraman ezazu ur-kantimplora. Beti eskertuko dugu hamaiketako edo askari txiki bat, eta lagunekin partekatzeko bada, askoz hobeto.
3. Labana ere ekipoa sartu behar duzu.
4. Erantsi beharko dituzun tresna guztiak: prismatikoak, lupa, poteren bat, landa-koaderno, arkatza, linterna, argazki kamera, fauna eta flora gidak, sarea ...
5. Zarama batzeko poltsa. Maskota zurekin badator, ez ahaztu uhalaz eta gorotzak biltzeko poltsaz.
6. Eta, azkenik, etxetik hurbil egon arren eta ingurua ondo ezagutu arren, hobe da botikin txiki bat eranstea. Nahikoa izan litezke tiritak eta antiseptikoa. Eta udan, ez ahaztu eguzkitako kremaz.

Hiriguneetan biodibertsitateari eusteko ideiak

Badaukazu zure inguruko fauna eta landareen etorkizuna hobetzea. Hona hemen hamar ideia:

1. Faunarekin elkarbizitza baketsua sustatu

Badakigu zure eraikinean hegaztiekin atondutako habiak edo zure logelako armiarma-sareak gogaikarriak izan daitezkeela. Bilatu nola egin zure inguruko faunak ere etxetxo bat izan dezan. Kontuan eduki habialdia laburra izaten dela. Hegaztien zirinak saihestu nahi badituzu, habiaren azpian kartoia ipini eta kito. Armiarma eta beste zomorro batzuei dagokienez, nahikoa da etxetik bidaltzea ahalik eta kontu handienaz. Hala ere, ondo pentsatzen jarritz gero, armiarmadun etxea eltxorik gabeko etxea izaten da. Erabakia zurea da.

2. Lorategiak babestu

Zure etxe ondoko lorategiak bizitzaz mukuru beteta egoten dira. Normalean, leku horiek kudeatzeko orduan, udal arduradunek ez dute han bizi diren espezieen bizitza-zikloa kontuan hartzen. Adibidez, belarra sarritan ebakitzen dute. Zure herriko udalari edo auzo elkarteari proposamena egin ahal diezu, nahi baduzu dinamika hori aldatu. Zuk ere lorategi txatal bat babesenezake. Kartela jarri eta zure erara kudeatu. Landareren bat landatu ere eginenezake. Bilatu interneten horrelako ekimenak eta ausartu martxan jartzen.

3. Neguan lagundu hegaztiei

Negua aro latza da hegaztientzat, elikagaiak urri eta eguraldia zantarra izaten delako. Hiri eta herrietako hegaztiei laguntzeko aska bat atontzea daukagu. Nahikoa da leiho-hegian edo lorategiko zokondo batean plater bete hazi ipintzea. Gabonetako afarietan soberan gelditu diren polboroiak oso elikagarriak dira. Nahastu guztiak eta bolak egin. Saretxo batean bildu eta utzi zutoin batetik dingilizka. Mauka-mauka jango dituzte!



4. Zure balkoia mikroerreserba bilakatu

Zure etxeko balkoia, terraza, lorategia edo baratzea faunarentzako eta landarearentzako leku abegikorak izan litezke. Habia-kutxa, hegaztientzako aska, intsektuentzako hotela edo tximeleta-oasia ideia bikainak izan litezke eremu hori natura-erreserba bilakatzeko. Liburu honetan horrelakoak egiteko ideia andana bat topatuko duzu.

 Zure balkoia faunarentzako eta landarearentzako leku abegikorra izan liteke.

5. Laguntzeko, ezagutu

Hegazti txikiei neguan laguntzea itzela da, baina jakin ezazu udaberrian ez zaiela jaten eman behar, belaunaldi berriek ikas dezaten euren kabuz elikagaiak lortzen. Ez ahaztu basa-animaliak direla, nahiz eta hiri eta herrietan bizi, eta haien elikadura propioa daukatela. Ahateek, esate baterako, ez dute ogirik jaten. Ez da oso nutritiboa eurentzat eta giltzurrunei kalte egin diezaieke. Erabili haziak, artoa edo garia adibidez, eta utzi beti uretatik kanpo. Elikagaiak uretara jaurtitzen badituzu, behar ez diren algak eta hatsak zabalduko dituzu.

Buztangorri iluna

Phoenicurus ochruros

Haitzetako hegaztia bada ere, sarritan ageri da gure hirietan eta herrietan. Kolore bitxiak janzten dituen txoritxo da, gehienbat marroiak edo ilunak, buztan gorria eta ipurtarin samarra.



Buztangorri ilunak
buztan gorria izaten du



Zikoina zuria

Ciconia ciconia

Hegazti paregabe hau gure kanpandorre eta eraikinekin estu lotuta dago. Tamaina handikoa, zuria da baina hegal ertzak beltzak ditu. Moko luzea laranja bizia da. Abarrekin habia handiak atontzen ditu eta bikote-kideek elkar agurtu ohi dute mokoan talkaz egiten duten zaratarekin. "Zikoinak jo" esaten zaio ekintza horri.



Belatz gorria

Falco tinnunculus

Belatz txiki hau oso ohikoa da landa-eremuetan eta, gutxika-gutxika, gero eta gehiago ikusten da hiri inguruetan ere. Kolore arre gorrixka du, tanto beltzekin. Arrek burua urdinxka dute eta begi azpian bibote iluna ageri da. Ugaztun txikiak, hegaztiak eta intsektuak jaten ditu, ehiza teknika bitxi batez harrapatu eta gero: hegan daudela, belatzok leku batean geratzeko gauza dira, 10-20 metroko altueran, hegalak astinduz. Ehizakia ikustean, bila amiltzen dira, ziztu bizian eta isilik-misilik.




Buztanikara zuria

Motacilla alba

Txori txiki eta lirain honek bularra zuri eta bizkarraldea grisa dauzka, buztan bereizgarria ahaztu gabe. Buru zuriak tanto beltzak ditu eta aldatzen zaizkio adinean gora egin ahala. Uretatik hurbil egoten da, erreka eta aintzira inguruetan, baina baita parke eta kaleetan ere.



Hozkailuaren atzealdea



Akaroak, armiarmak (aramu, marasma, ainarba...), zilar arrainak, ipurtsardeak, kukurutxak, sitsak, zimitzak, inurriak, labezomorroak... artropodo andana bizi da, lasai asko, gure etxean. Horietako batzuk giza-kiok sortzen ditugun hondakinek, beroak eta hezetasunak erakarrita etorri dira. Beste batzuk, oster, lehenengoen harrapakariak dira, ehunzangoa kasu. Haren ardura da nahitaez bizilagun dugun mikrofauna hori kontrolpean edukitzea. Ekosistema bat, beraz, miniaturan, baina liluragarria. Hona hemen hozkailuaren atzealdean topa zenezakeen faunaren hautapen txiki bat:

Jateko moduko basoa

Historian zehar, gizakiak etxekotu egin ditu bere intereseko landare emankorrenak. Horixe gertatu da, adibidez, garia edo artoa bezalako laboreekin, baratzeko barazkiekin, patatak edo azenarioak kasu, edo aranondoak eta sagarrondoak bezalako fruta-arbolekin. Liburu honetan ez duzu ezer aurkituko etxeko espezieen gainean (basa-biodibertsitateari buruzko liburua delako) baina, etxekotuez gain, gure inguruan fruituak ematen dituzten landare andana dago. Horietako batzuk, sagarmina esate baterako, etxekotutako sagarrondoen arbasoak dira. Gure baratzetatik gertu, bide-bazterretan edo basoetako ertzetan, zer jan ematen diguten zuhaitz eta zuhaixka mordo dago. Jateko moduko basoak.



Sagarmina

Malus sylvestris

Sagarminak ez dira zuhaitz handiak, zazpi bat metro altu izan daitezkeen arren normalean 3-4 metrokoak izaten direlako. Orri obalatuak lantza-punta formako muturra du, eta ertzak pixka bat horzdunak dira. Lore zuri handiak sortzen ditu, multzotan. Lore bakoitzak fruitua ematen du, sagartxo horia, batzuetan apur bat gorrixka, zaporez mikatza. Postreak, ozpina eta alkoholdun edariak egiteko erabiltzen da.



Basa arrosa

Rosa canina

Astoarrosa edo arkakaratsa ere esaten zaio. Zuhaixka arantzadun hau bi metro altu ere izan daiteke. Orri konposatuak ditu, obalatuak eta horzdunak. Lore handiak eta zuriak ditu, batzuetan arrosakarak, bost petalotakoak. Fruitu gorri mamitsuak ditu ezaugarri, arkakaratsak izenekoak. Fruituon mamia likatsua da, ahoan gazi-gozoa. Hazi horiak ditu eta, janez gero, idorreria eragiten du.





Elorri zuria

Crataegus monogyna

Zuhaitz honek adar arantzadunak ditu eta ez da izaten, normalean, bost metro baino altuagoa. Orri nabarmen zerradunak ditu eta lore zuri usaintsuak ematen ditu. Zuhaitzen artean lehenengoetakoa da loratzen (orriak udaberrian agertu baino lehen egiten du), eta horregatik neguan ikusten erraza da, loratze eder batekin. Fruitu txikia biribila da, gorri iluna. Jan badaiteke ere, zaporegabea eta apur bat irintsua da. Fruituak hazi handi bat dauka, hura ere biribila.

Sasia edo laharra

Rubus ulmifolius

Zuhaixka arantzadun hau oso ezaguna da bere fruituei esker: masustak. Orri konposatuak ditu, obalatuak eta horzdunak. Loreak multzotan ageri dira eta zurixkak edo arro-sakarak dira. Masusta, bere fruitua, landare-tik bertatik hartu bezain laster jan daiteke. Hori bai, jakin behar dugu udaren amaieran heltzen direla eta orduan kolore beltza hartzen dutela. Postreak eta marmeladak egiteko erabiltzen dira.



Elorri beltza

Prunus spinosa

Zuhaixka arantzadun hau lau metro altu ere izan daiteke, eta adakera trinkoa du. Orriak txikiak dira, lantzeolatuak eta zerradunak; loreak, berriz, zuriak. Fruitua, basarana, mahats biribil edo obalatu baten antzekoa da, beltz urdinxka. Zapore garratza du eta oso idorgarria da (mihian itsatsita gelditzen zaizu ahoan daukazunean). Patxaran edari alkoholodun ezaguna egiteko erabiltzen da.



Gaztainondoa

Castanea sativa

25-30 metro altu izan daitekeen zuhaitz handi honen azala grisaxka eta enborrean arrakalatua da. Orri luze (20 zentimetro ere) zerradunak ditu, hortz handikoak. Bere fruitua gaztaina ospetsuak dira. Udazkenean erortzen dira zuhaitzetik. Gaztainak (bat eta hiru artean) oskol arantzadun baten baitan daude. Oskol horri morkotsa, lakatza edo kirikino esaten zaio. Gaztainak gordi-nik jan badaitezke ere, goxoenak gaztaina erreak dira. Kremak eta postreak egiteko ere erabiltzen dira.



Fruituak ematen dituzten landareak

Sagarmina

Basa arrosa

Sasia edo laharra

Elorri zuria

Elorri beltza

Gaztainondoa

Masusta izozkia

Udako azken asteetan gorri-gorri zeuden masustak belztu egiten dira. Heldu diren seinale da hori. Oso atsegina da lagunekin eta senideekin masustatara joatea. Gainera, etxera jaki bikaina eramango dugu, masustak gozo-gozoak direlako. Bildu ahala jan ditzakegu, jogurtean nahastuta, marmelada, tarta edo bizkotxo eginda... hamaika aukera dago! Irailean, masustatan joateko hilik onenean, oraindik ere bero izaten da. Horregatik, udari behar bezalako despedida emateko asmoz, izozki erreza batekin gatzokizue.



Ibilaldi bat masustatan, 30 minutu erreza egiteko eta bost ordu izozkailuan



Zazpi urtetik aurrera



Urteko garaia: abuztuaren erdialdetik irailaren amaierara arte



Bide bazterretan edo basoetako ertzetan egoten dira masustadun sasiak Errezeta etxeko sukaldean egin



- 250 gramo masusta
- 4 koilarakada azukre
- 150 gr jogurt greziar
- 2 koilarakada gazta krema
- Irabiatzeko eta izozteko ontziak
- Irabiagailua
- Puregailua
- Film papera
- Koilara



Itxura ederra daukate, gero!



NOLA egiten da?

1. Ontzi batean irabiatu masustak bi koilarakada azukrerekin krema lortu arte.
2. Iragazi krema hori puregailuan, hazi txikitxoak kentzeko.
3. Nahastu jogurta eta gazta krema, erantsi masusta krema



egin berria eta geratu zaigun azukrea (oso gozo ez baduzu nahi, ez bota azukre hori).



4. Nahasketa ontzi batean jarri eta goialdea film paper gardenaz estali, burbuilarik eginez dadin. Sartu izozkailuan.
5. Ordubete geroago, eragin nahasketa eta jarri berriro film



6. Atera ezazu izozkailutik, jarri egizkiozu masusta fresko gutxi batzuk gainean apaingarri eta... on egin!

JARDUERA



30 minutu egunean
(egun batzuk izango dira)



Bost urtetik aurrera



Udaberria eta uda



Etxe ondoko lorategian
edo landan, baratzean...

Nondik nora dabil barraskiloa?

Askotan ikusten ditugu barraskiloak gure inguruan. Espezie andana bat dago, bakoitza baldintza jakin batzuetara egokituta. Ugaltzeko estrategia bitxiak dituzte eta badakite nola jokatu lehorte luzei aurre egiteko. Animalia geldoak direlakoan gaude, baina hala ote da? Zer abiada hartzen du barraskiloak? Jarduera hau eginez jakingo dugu. Oso erraza da.



- Landa-koadernoak
- Errotuladorea
- Metroa



NOLA
egiten da?

1. Ekaitz baten ondoren, topatu ahalik eta barraskilo gehien zure ikerketa-eremuan (lorategian edo baratzean, adibidez). Ahal bada, izan daitezela denak

espezie batekoak. Adibidez, barraskilo arrunta.

2. Zure landa-koadernoan marraztu ikerketa-eremuaren plano bat eta markatu



non topatu dituzun barraskiloak.

3. Barraskiloa aurkitzen duzunean, marka egiozu oskolean identifikazio-kode bat. Adibidez, zenbaki bat.

4. Itxaron zaitez hurrengo ekaitza izan arte (edo, gutxienez aste pare batez) eta hasi berriro barraskilo bila. Apuntatu non dauden eta kalkulatu egin duten distantzia.

Baten bat topatu duzu?
Ze distantzia egin du aurreko egunetik?
Tarte handia ala txikia da?

Etxeko animalien oinatzak eta arrastoak

Gure txango gehienetan etxeko animaliek utzitako zantzuak ikusiko ditugu. Segurutik, den-denak ezagutuko dituzu, baina gogora ekarriko ditugu, azkar-azkar:



Ardiak eta ahuntzak: 5-6 cm-ko bi apatx luzanga markatzen ditu. Beheko ertza biribila dute apatxok. Arrazaren arabera, oinatzak desberdinak dira. Ahuntzen apatxak elkarren ondoan daude atzealdeko muturrean eta, oro har, meheagoak eta zorrotzagoak dira. Taldean ibiltzen direnez, oinatz andana utzi ohi dute leku batean, sarritan gorozkiekin batera.

Behiak: apatxak oso handiak ditu, 10-12 cm luze, baina desberdinak dira arrazaren arabera. Aurrealdea zorrotzagoa eta atzealdea biribilduagoa dute.

Zaldiak eta astoak: Zaldiak eta astoak: nahastezinak dira, oinatzak apatx bakarraren marka duelako, zirkuluerdiaren formakoa. Ferrarik ez badauka, gehienetan sargunea agertuko da behealdean. 12-25 cm luze izan daitezke, arrazaren arabera.



Txakurrak: oinatz obalatuak lau hatz ditu hala eskuetan nola oinetan. Normalean, azazkal labur eta biribilduak. Simetrikoak direnez, ezin liteke jakin ezker edo eskuin oinatz ote den. Kuxinak hiruki forma dauka, ertz biribilduekin. Txakurraren arrazaren arabera, alde handiak egon litezke batetik bestera, 3 cm-ko oinatz txiki-txikietatik 10 cm luze diren oinatzetara. Eskuak oinak baino handiagoak dira.

Katuak: hala oinetan nola eskuetan, lau hatzeko oinatz biribilduak. Ez dituzte azazkalak markatzen. Kuxinak trapezio forma dauka eta atzealdean tamaina bateko hiru lobulu markatzen dituzte jarraian. Arrazaren arabera alde handiak badaude ere, normalean ez dira 4 cm luze izaten, ez eskuen oinatzak ezta oinenak ere.

Hirietako eta herrietako hegaztien oinatzak eta arrastoak

Oro har, askoz errazagoa izaten da hegaztiak ikustea edo haien txioak entzutea haien oinatzak topatzea baino. Hala ere, jakiteak ez duenez ogirik jaten, hegaztien oinatzai gainbegirada azkar bat egingo diegu, batez ere gure hurbileko naturan ibiltzen diren espezieenei.

Gure hiri eta herrietako hegaztien oinatzak ondoko ataletan sailka ditzakegu:

Atzitzailleak: hegazti txiki eta ertainen oinatzak dira. Nahikoa simetrikoak dira. Lau hatz dituzte (hiru aurrealdean eta bat atzealdean). Batzuetan atzealdeko hatzak azazkal luzea dauka. Zuhaitzetan pausatu ohi diren espezieak dira, hala nola **txolarrea**, **belatz gorria**, **buztanikara zuria**, **mika**, **usapal turkiarra** edo **zapelatx arrunta**.



ESPEZIEA	LUZERA	ZABALERA	FORMA	EDUKIA	NON AURKITUKO DUGUN
Hontz zuria	4-6 cm	2-3,5 cm	Zilindro formakoa, mutur biribilduaz eta azalera lisoa	Karraskari txikiak eta satitsuak. Batzuetan, hegazti txikiak	Lastategiak, elizak eta eraikin hutsak
Mozolo arrunta	2,5 cm	1,5 cm	Obalatua, mutur zorrotz batekin	Karraskari txikiak eta artropodoak	Lastategiak, eraikin zaharretako teilatuak eta zuhaitzetako zuloak
Apo-hontza	1,5 cm	1 cm	Luzanga eta mutur biribilduak	Intsektu hondarrak	Zuhaitzetan, habiatik hurbil

Eguneko harrapariak: belatzak eta arrano txiki eta handiak eguneko harraparien multzokoak dira. Egunez ehizatzen dute eta espezie bakoitzak bere gustuko ehizakiak ditu. Behin ehizakia hilda, mokoka zatitzen dute jan ahal izateko. Haien egagropilak, hortaz, hezur atalak, lumak, oskolak eta ezkatak dituzte, baina txiki-txiki eginda eta, horren ondorioz, zaila baino zailagoa izaten da zer jan duten jakitea.



ESPEZIEA	LUZERA	ZABALERA	FORMA	EDUKIA	NON AURKITUKO DUGUN
Zapelatza	6-7 cm	2,5-3 cm	Zilindro itxurakoa eta mutur zorrotz bat	Karraskariak, hegaztiak eta narrastiak	Zutoin, taket eta baso ertzean
Belatz gorria	3-3,5 cm	1,5 cm	Zilindro itxurakoa eta mutur zorrotz bat	Ugaztun txikiak, sugandilak, hegaztiak eta intsektuak	Zutoin, taket eta baso ertzean
Mirotz urdina	2-3 cm	1-2 cm	Zilindro itxurakoa eta mutur zorrotz bat	Batez ere, ugaztun txikiak	Atsedenlekuetan, labore-sailetatik hurbil



Mika: korbidoen multzoko gainerako kideek bezala, mikak ere egagropilak berriro ahoratzen ditu. 3,5 eta 4,5 cm luze izan daitezke, eta 1 edo 3 zabal. Luzangak izaten dira, estuak eta zorrotzak, eta haien baitan denetarik aurkituko dugu, intsektu hondarretatik hazietara. Egagropilak uzteko leku lasaiak nahiago dituzte, parkeetan eta baso ertzetan.



Zikoina: zikoinaren dieta oso zabala da. Narrastiak, anfibioak, intsektuak eta zizareak jaten ditu. Bere egagropilak nahikoa biribilak

dira, 5 cm luze eta 3,5 cm zabal. Haien habietatik eta bazkalekuetatik hurbil aurkituko ditugu.



Usapal turkiarra	Plataforma zurruna, batzuetan nahikoa baldarra	15-20 cmko diametroa	Adarrak eta hostoak	Zuhaitz eta zuhaixketan	1 edo 2, zuriak
Zikoina zuria	Plataforma handia	40-100 cm altu eta 80-140 cm diametroa	Makilak eta sustraia	Eraikinak eta zutoin handiak	3 edo 4, zuriak
					
Mika	Kaiku handia, batzuetan goitik adartxoak estalita	40-56 cmko diametroa	Adarrak, goroldioz, artilez eta lumaz estalita	Zuhaitz eta zuhaixketan	5-8, urdin-berdexkak, tanto askorekin
					
Zapelatza	Plataforma	80 cmko diametroa eta 35 cm altu	Adarrak eta makilak, hosto freskoak estalita	Zuhaitzetan, oso altu	2-4, zuriak tanto marroiekin
Karnaba	Katilu formakoa	7-9 cmko diametroa	Adartxoak, zuntz eta landare-gai zuriz estalita	Zuhaitzetako eta zuhaixketako goiko adarretan	4-6, urdinkarak, tantodunak

Txirriskila	Katilu formakoa	8-10 cmko diametroa	Zurtoin meheak, goroldioa eta likenak, lumaz eta ilez estalita	Zuhaitzetan eta zuhaixketan	2-5, zuri-urdinkarak
Txantxangorria	Katilu formakoa	12-15 cmko diametroa eta 4,5-7,5 cm altu	Orbelak, belarrak, eta goroldioa. Barrualdean lumak eta ileak	Lurretik hurbil, zuhaitzetako eta zuhaixketako behealdean	4-6, zuri-urdinkarak, tantodunak



ADI ibili

Bazenekien zikoina batzuen habiak metro bi altu izan daitezkeela eta haien pisua bi tona baino gehiagokoa izan daitekeela? Egitura hain da handia ezen zikoinentzat ez ezik, hamaika animaliarentzat ere aterpe izaten den, adibidez, txolarreentzat eta arabazozientzat.

Hegazti habiak lurrean: habiak aipatzen ditugunean, normalean zuhaitzetako adar batean bermatuta irudikatzen ditugu. Baina badira habia lurrean egiten duten hegaztiak. **Mirotz urdinak** laborantza-sailetan egiten ditu. Besterik gabe, landare batzuen gainean eremu txiki bat atontzen du bere txitak babesean egon daitezen.

ADI ibili

Zereala batzeko garaian mirotz urdinaren txitak oraindik habian daude. Horregatik oso garrantzitsua da habiak non dauden jakitea eta leku horietako nekazariak uzta batzeko lanak apur bat atzeratzea. Prezio txikia da, mirotzak labore-saila karraskaririk gabe mantentzearen truke.